# BIDAIAK – INGURUMEN-IRIZPIDE SINPLIFIKATUAK

## Prozedura ireki bidez kontratatzeko eta lehiaketa bidez esleitzeko ingurumen-irizpideak

| Oinarrizko maila | Maila aurreratua |
|---|---|
| **KONTRATUAREN XEDEA:** | **KONTRATUAREN XEDEA:** |
| Bidaiak kudeatzeko zerbitzuaren kontratazioa (pertsonak eramatea garraiobide ezberdinetan –hegazkinez, trenez, autobusez edo autoz– eta ostatua) ingurumen irizpideen araberakoa izango da. | Bidaiak kudeatzeko zerbitzuaren kontratazioa (pertsonak eramatea garraiobide ezberdinetan –hegazkinez, trenez, autobusez edo autoz– eta ostatua) ingurumen irizpideen araberakoa izango da. |
| **GAUZATZE-IRIZPIDEAK (nahitaez betetzekoak):** | **GAUZATZE-IRIZPIDEAK (nahitaez betetzekoak):** |
| **Bidaia**<br><br>1. Bidaiarik antolatzea eskatzen denetan, enpresa esleipendunak aukera eskuragarriak aztertu eta eskaera-egileari aukera hoberenen berri eman beharko dio. Era berean, 3 ordu baino gutxiagoko hegaldietan, esleipendunak bidaia bera trenez egiteko dauden aukerak aztertu eta jakinaraziko ditu. | **Bidaia**<br><br>1. Bidaiarik antolatzea eskatzen denetan, enpresa esleipendunak aukera eskuragarriak aztertu eta eskaera-egileari aukera hoberenen berri eman beharko dio. Era berean, 3 ordu baino gutxiagoko hegaldietan, esleipendunak bidaia bera trenez egiteko dauden aukerak aztertu eta jakinaraziko ditu. |
| **Ostatua**<br><br>2. Ostatu erreserba eskatzen denetan, esleipendunak, ohe-bagoiez gain, garraio publikoarekin ongi konektatuta daudenak eta jomugatik eta/edo ekitaldia izango den tokitik gertu daudenak | **Ostatua**<br><br>2. Ostatu erreserba eskatzen denetan, esleipendunak, ohe-bagoiez gain, garraio publikoarekin ongi konektatuta daudenak eta jomugatik eta/edo ekitaldia izango den tokitik gertu daudenak |

<table>
<tr>
<td>eta ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiak dituztenak lehenetsiko ditu.</td>
<td>eta ingurumen-kudeaketako jardunbide egokiak dituztenak lehenetsiko ditu.<br><br>3. Aukeren artean ingurumen kudeaketako jardunbide egokiak dituen alojamendu bat egongo da gutxienez. Jardunbide horiek ingurumenaren kudeaketa-sistema baten bidez (EMAS, ISO 14001...) edo bestelako sistema baliokide baten bidez egiaztatzeko modukoak izango dira.</td>
</tr>
<tr>
<td>Turismo erako ibilgailuak<br><br>3. Auto-alokairuen eskaeren kasuetan, esleipendunak eskaintzaren berri (bi aukera gutxienez) emango dio eskaera-egileari. Aurkeztu beharreko dokumentazioan, aukera bakoitzarentzat, honako informazio hau emango da:<br><br>
<table>
<tr><th>Marka, modeloa eta matrikula zenbakia</th><th>Batez besteko $CO_2$ isuriak (g/km)</th><th>Energiaren efizientzia</th><th>EURO estandarra</th><th>Prezioa eta baldintzak</th></tr>
<tr><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
</table>
<br>Aukeren artean beti egongo da A edo B energiaren efizientzia-kategoria duen turismoren bat, eta ibilgailuaren $CO_2$ isurketak ez dira inoiz 200 g/km-tik gorakoak izango. Ibilgailuaren kategoria eta isurien datuak jakiteko ekoizlearengana zein banatzailearengana joko da eta/edo web orri honetara: http://coches.idae.es/</td>
<td>Turismo erako ibilgailuak<br><br>4. Auto-alokairuen eskaeren kasuetan, esleipendunak eskaintzaren berri (bi aukera gutxienez) emango dio eskaera-egileari. Aurkeztu beharreko dokumentazioan, aukera bakoitzarentzat, honako informazio hau emango da:<br><br>
<table>
<tr><th>Marka, modeloa eta matrikula zenbakia</th><th>Batez besteko $CO_2$ isuriak (g/km)</th><th>Energiaren efizientzia</th><th>EURO estandarra</th><th>Prezioa eta baldintzak</th></tr>
<tr><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
<tr><td></td><td></td><td></td><td></td><td></td></tr>
</table>
<br>Aurkezten diren aukera guztiek izan beharko dute energiaren efizientzia-sailkapen bat, gutxienez B kategoriakoa (edo hobea) eta $CO_2$ isurketak ez dira inoiz 160 g/km-tik gorakoak izango. Ibilgailuaren kategoria eta isurien datuak jakiteko ekoizlearengana zein banatzailearengana joko da eta/edo web orri honetara: http://coches.idae.es/</td>
</tr>
</table>

| | **Autobusak**<br><br>5. Autobus-alokairuen eskaeren kasuetan, EURO V estandarrak (2008. urteaz geroko ibilgailuetan) edo ondorengoek agindutako gasen isuri-mailak betetzen dituztenak izango dira. Esleipendunak honako informazioa helaraziko dio eskaera-egileari: |
|---|---|

| **Marka, modeloa eta matrikula zenbakia** | **EURO estandarra** | **Prezioa eta baldintzak** |
|---|---|---|
| | | |
| | | |

**OHARRAK:**

Dokumentu honetan garatutako irizpideez gain, kontratua gauzatzeko baldintzekin zerikusia duten betebeharrak ere adieraztea interesgarria izan daiteke.

Informazio gehiago nahi izanez gero, [www.ihobe.eus](http://www.ihobe.eus) **webguneko Erosketa Publiko Berdearen atala** kontsulta dezakezu edo Ihoberekin harremanetan jar zaitezke, bide hauetatik:

- Tel.: 94 423 07 43
- Helbide elektronikoa: compra.publica@ihobe.eus